



# Kultur Astia

*Ekaiñaren 1etik 9ra*

## Oñati

## Memoria

### 1.- Asmua edo helburua.

Aspaldiko asmua zan Jerardo Elortzari omenaldi herrikoi bat egittia; izan be, herrixan oso pertsona ezaguna eta estimaua dogu bera, batez be, azkenengo berrogeita hamar urtian, sail askotan, herriko kulturiaren alde egin dittuen lanakatik eta eurak burutu dittuen moduagatik, betik bakarkako zein taldeko lanetan ingurukuai lagunketako prest eta borondatetsu jardun dau-eta. Hizkuntzan, literaturan, antzerkixan, historian, etnografian eta beste zenbait esparrutan lan egindakua da gizona, danetan herriko zein Euskal Herriko gaixak landuaz eta mailla gorenera eruanaz.

Horregatik, bada, omenaldi bat eskiñi gura gotsan, ondo mereziutakua. Eta berarekin batera, Oñatin euskal kultura lantzen eta berpizten hirurogeiko hamarkadako erdialdetik laurogeikora bittartian jardun euen beste pertsona batzuk be gogoratu eta omendu gura gittuen.

Gogo edo asmo horrekin Kultur Aste bat antolaittia pentsau geben, Jerardo omenketako ez eze, berak gure kulturiarendako dakon maittasuna eta jakinguria gaztiaguen artian txertaketako asmuarekin be.

Hori guztia aurrera etarateko herriko talde eragille bat eratu zan zeifiek antolaketiaaren arduria hartu eben, ondoren aittatuko dittugun lanak egitteko: hasierako deialdi orokorra egin, ideiak batu, azpitaldiak sortu, ardurak neurri batian partiu eta jarraipena egin. Eta puntu honetan ezin dogu aittatu barik itzi herriko Udalak be lehenengo unetik bat egin ebela omenaldixaren ideiarekin, bere eskuetan eguen guztia egiñaz, hau da, baliabide ekonomikuak, azpiegiturekuak, edota, giza-baliabidiak jarrrixaz. Horreik barik nekez etara ahal izango geben, etara zan moduan, omenaldi hau. Hori dala eta, esker

berezixak emun biharrian gagoz Mikel Biain alkatiari, Nerea Zubia zinegotzixari eta Miren Urkiola udal kazetarixari.

## **2.- Programiaren garapena eta baloraziñua**

Jerardoren ibilbidiaren jakittun izanik, bagekixen ganorazko omenaldi bat egittekotan ate asko jo bihar izango gebela eta halaxe izan zan, asko eta asko dira-eta berak jorratutako arluak eta harremana izandako pertsonak eta erakundiak.

Lehenengo bi billeretan gaixa agertu eta ideiak batzen jardun geben. Hirugarrenian aurrera jotia erabagi eta plan zihatza aurkeztu geben, eta handik aurrera eragilliakin egon, garai hartako lekukuak topau eta lan desbardiñetarako pertsona egogixenak billaketan jardun geben.

Esan bihar da, atia jotako leku eta pertsona guztien aldetik jarrera ona eta, gehixenetan, lanen bat hartzeko konpromisua geuregandu gebela. Erantzun horrekin antolatzaillioz pozik eta seguru sentiu giñan.

Bestalde, oso modu naturalian erabagi zan herriko euskeria izango zala omenaldixan ebaliko zana. Talde eragillekuak halaxe egitten geben berba eta batuan jarduten euenak ezeuen pegarik ifiñi. Gaiñera, hala omenduaren jatorrixak, ibilbide eta jardunbide akademikuak nola omenaldixa herrixan bertan eta herrixak egiña izango zala kontuan hartuta, horrek guztiak omenaldixaren komunikaziño-hizkuntzia bertako euskeria izatia eskaketan eben.

Makiña bat billera egin ziran, hogeita seittan aktia jasota, 2017ko garagarrilletik 2018ko mariatzaren azkenera bittartian, gehixenak arlokakuak, esan gura da, ardura zihat bat hartuta ekuaiñakin, mahai ingurukuakin, komunikabidietakuakin, edo, udaleko agintarixakin, esaterako.

Billera horrein guztien ondorioxoz omenaldixaren ohixala ehunketan fan giñan, arlo bakoitzak bere pausuak zela xoian emuten ikusi ahala. Azkenian, danon laguntzaiagaz eta ahalegiñakin ondorengo egittaraua biribilddu geben.

### **a) ARTIXA taldiaren eskutik Jerardo Elortzaren gaiñeko erakusketia, Kultur Etxian bagillaren 1etik 8ra.**

Inauguraziñuan Jose Antonio Azpiaturen berba batzuk entzun gittuan eta Xabier Ugartek eta Jose M<sup>a</sup> Anduagak kittarriagaz lagunduta kantu batzuk kantau gittuan entzule guztiok, bestiak beste, omenduari eskiñitakua. Gero, jarritako argazkixak eta bideua ikusi gittuan eta, akabaitteko, eskiñi zan mokadutxo bat jan geben.

Ekittaldi horretan berrogei bat lagun alkartu giñan eta astian zihar beste horrenbeste. Holaxe, hasiera berua emun xakon Jerardoren omenaldixari.

**b) Hitzaldixa 'Jerardo Elortza egille' Santa Ana antzokixan, bagillaren 4an.**

Ekittaldixak hiru zati izan zittuan: Paulo Anduagaren testuaren irakurketia, aitta agustiñuak Jerardorekin izan dauein harremanaren barri emuten ebena; Idoia Etxebarriak gertatu eben Jerardoren gaiñeko zortzi miñutu inguruko bideua, Kepa Elortzak eta Roberto Altunak aurretik Jerardori egindako bi grabaziñuen laburpena zana, eta Juan Martin Elexpuruk irakurritako hitzaldixa.

Saixua bikain-bikaiña izan zan bere osotasunian, Jerardoren figura ondo ezaguketan euen hizlarixak parte hartu euen-eta. Eta horrez gain, Jerardoren irudixa ikusixaz eta kontuak entzunaz gozau ahal izan geben, Idoiak prestatutako bideuaren bidez.

Guztira 82 lagun egon giñan saixuan eta, esandako moduan, gozamen haundixa hartuta urten geben aretotik.

**c) Mahai-ingurua 1965-1980 urte inguruko Oñatiko kultur bizitzaren berpizkundiaz, garaiko lekukuak emuna. Kultur Etxian, bagillaren 6xan.**

Partaidiak: Jerardo Elortza; Euxebi Osa, Ikastoliaren sorrerako girua eta gorabeherak kontaitteko; Carmenchu Balzategui, Oñatz alkartiaren barri emuteko; Juantxo Madariaga, Udal liburutegiko batzordeko kontuak gogora ekarteko. Moderatzaillia: Luxio Ugarte.

Ekittaldi honek izugarrizko jakinguria sortu eben herrixan eta Kultur Etxeko aretua muku bete zan, 90 lagunetik gora, beraz. Partaide bakoitzak, berak parte hartutako alkartiaren historiaren talaixatik begiratuta, kontau eben garai hartako herriko kultur mugimendua zelakua zan eta zela bizi izan euen eurak sasue ha, Jerardok azalpen osagarrixak edota lagungarrixak emuten zittuan bittartian.

Jente gehixena Euxebiren azalpenaren zain-zain eguen, Ikastolako hasierako urtietako gatazka eta purgia etzan edozelakua izan-eta. Euxebik Ikastolako neska-mutiko batzuk ekarri zittuan berari galderak egitteko, hala hobeto defenditteko.

Ekittaldixa besteriko barik amaittu zan: tentsiño uniak igarota, danok gustura etxera.

**d) Jerardo Elortzak parte hartutako filmen emunaldixa Kultur Etxian, bagillaren 7xan.**

Honeitxek izan ziran erakutsitako filmak Kepa Elortzaren sarreriarekin eta Agustin Goenagak aurkeztuta:

- *Gabon dut anuntzio* (1999)
- *Liñugintza* (1974)
- *Aita Lasa, artzainen artzain* (1981)
- *Lope de Agirre* (1983)

Aretua bete egin zanez, 80-100 lagunek ikusi euen emunaldixa. Txukuna izan zan ekitaldixa, Kepa eta Agustin gogotik saiatu ziran film bakoitza bere testuinguruan jarten, banan-banan hartu eta azalpenak emunaz. Jentia gustura urten eben saixotik.

**e) Omenaldi eguna, Santa Ana antzokixan, bagillaren 9xan, Olatz Osak aurkeztuta.**

Ospakizunak hainbat atal izan zittuan:

- Sarrera
- Lagunen bideua
- Iñaki Aldekoaren laudoriuma
- Poesia-errezitaldixa
- Kantua
- Bertsolarixak
- Paillazuaren emunaldixa
- Lagunen atxikimenduen bideua
- Gurekin eztagozen laguneroitzapena
- Alkatiaren berbak
- Omenduaren esker-berbak
- Kanpua etaratako famelixa-erretratua
- Etxe Aundiko bazkarixa
- Bazkalostekuak: Bertsua, kantuak eta erregaluak

Oso ekitaldi betia eta zenbait momentutan oso hunkigarria izan zan. Aurretik egindako lan guztia bertan agertu zala esan leike. Antzokiko aforo guztia bete zan, beraz, 240 lagun inguru egongo giñan bertan. Jentia pozik urten eben eta amaieran antolatzaillioi zoriondu gintuein. Kanpua etaroko fotografixiak be egunaren oroigarri eta garrantzia markaitiaz gain, herrixak Jerardorendako dakon esker ona agerketako balixo izan eben. Saixua Goierna TBK grabau eben.

Etxe Aundiko bazkarixa be etzan izan edozein modutakua, lagun arteko ezkontza haundi baten parekua izan zala esan leike, goiko jangela guztiz bete

geben 170 lagunakin, hain justu be. Autobusa ifinttia be jatetxeko fan-etorrixa egitteko ideia bikaiña izan zan zenbait lagunak eskertu euen. Bi berbatan esanda: egun biribilla.

**f) Natur Eskolaren eskutik txangua Araozdik Urrusulara, bagillaren 17xan**

Oso ekittaldi ederra benetan Natur Eskolakuak Jerardoren laguntzaiarekin gertatu euen. Autobusa hartu geben goizeko 8:00etan postetxian eta Araotzen alkartu giñan hirurogei lagun inguru, autobusekuak, kotxedunak eta oiñezkuak kontauta. Auzoko saluera fan eta kafesne bat hartuaz Jerardoren azalpenak entzun gittuan ibillaldixaren nundik norakuak zein izango ziran jakitteko.

Ondoren, oiñez abixauta Aizkorbetik Agerre auzunara fan giñan lehenengo, han Elortza jeneralaren jaixotetxe aurrekaldian —Agerre baserri aurrian— Jerardok emundako azalpenak entzun gittuan. Handik Saratxoko iturburura, eta han Santi Ugartek eta beste espeleologo batzuk paraje hartako sare hidrografikoaren berri emun zittuain. Gero Araotz Urrutira, eta han Amiamena baserriaren aurrian, berriz be, Jerardoren azalpenak etorri ziran. Handik Zubixa auzora eta gero errepidera. Errepidetik aurrera, Jaturabera, eta han, berriz, entzun gittuan Jerardoren azalpenak. Eta orduak aurrera xoiazela-eta, handik zuzen iñun geratu barik ubidiari jarrituaz Olateko indarretxeraiño fan giñan. Han autobusa zain geukan, danok bertan sartu eta hiru eta erdittarako etxian giñan. Eguraldixak lagundu oskun eta danak esaten etorri giñan urteerriaren antolaketia bikaiña izan zala etorri giñan. Holako gehixago egitteko eskaerak be egon ziran. Berriro esango dogu autobusa ifinttia oso ideia ona izan zala.

Laburpen moduan haxe esango dogu:

Omenaldi osua arrakastatsua izan da alde guztietatik begiratuta. Lan biribilla egin da, makiña bat esker jaso izana da horren seiñale. Jente guztia oso gustura geldittu da: omendua, famelixakuak, lagunak, laguntzailliak, antolatzailliak eta herrittarrak jeneralian. Lan fiñaren emaitza, berba batian. Eta gaiñera, omenaldi honek geroko geratuko diran lan asko egitteko aitzakixa emun dau: *jerardoelortza.eus* web orrixa, Wikipediako sarrera, *ahotsak.com*-eko bideua, Goiena TBko erreportajiak, prentsako jarraipen zabala, Jerardo Elortzarekin berbetan liburua, etab.